

Partekatu: oihalezko txalupa bat



Parkera iristean, gure taldeak ezusteko bat hartu du. Udaleko langileak aintziraren hondoa garbitzen ari dira. Arrainak arrainontzian daude, eta nenufarrak lorategi botanikoko urmaeletan. Gainera, hondatutako txalupak konpontzeko kaia itxi egin dute.

—Gure txalupa eraman dute? Gure leku berezia da-eta! —esan du Isabelek.

—Aurkituko dugu beste lekuren bat —erantzun du Rafael—. Olibondora joan gaitezke. Arropa zaharrak adarretatik zintzilikatuz gero, beste txalupa bat izango dugu.

—Ideia bikaina! —esan du gogotsu Rakelek.

Oihalezko txaluparen barruan oso gustura sentitu gara, eta bakoitzak azaldu du zergatik den hain leku berezia.



1 Zergatik da berezia txalupa? Osatu erantzunak.

Rafael _____ dagoelako.

Isabel _____ sentitzen delako.

Rakel _____ dagoelako.

Danielek _____ ikasten duelako.

